



IÑAKI GOMEZ, ERRENTERIARRAK, "GOYA SARIA" JASO DU AURTEN

Antton Mitxelena

Aurtengo Otsailaren hiruan, Goya sarien banaketa ematen ari zirela ustegabe galanta izan genuen "Marrazki Bizidunen luzemetrai Onenaren Saria" jasotzeko garaian gure herrikide Iñaki Gómez Sarasola oltzara hurbiltzen ikusi genuenean. Gertakariaren biaramunean ikusteko aukera izan nuen eta momentuan erabaki nuen aurtengo Oarso aldizkariko orrietara ekarri beharreko berria zela, esplika ziezagun zertan datzan saria eta horretara iristeko egindako bidea. Ez dakit inoiz beste herritar batek honelako saririk jaso duen, ezezkoan nago.

Hogeitamazapi urteko gizon gaztea dugu Iñaki; ezkondua eta bederatzi eta hiru urteko bi alaben aita. Ezkondu zenez geroztik San Juanen bizi bada ere errenteriarra sentitzen da guztiz eta Foru Plazako jolasak ditu bere haurtzaroko oroimenetatik sentituenak.

Irripartsu hartzen gaitu bisitaren zergatia aipatzen diogunean eta erantzutera prestatzen da luzatzen diogun lehenengo galde-raren aurrean.



O.A.: Noiztik ari zara zine munduko ekoizpen lanean eta zeintzuk dira lan honen ezaugarriak? Bestetik, zein da zure ardura lan horretan?

I.G.: 1.985. urtean hasi nintzen lan honetan IRUSOIN enpresan. Bi arlo desberdinetara zuzentzen da enpresa honen lana. Batetik, zine eta telebistarako lana egiten dugu, soinu aldetik efektuak eta bikoizketak eginez eta, era berean, bideorako irudiak eta efektuak sortzen ditugu.

Bestetik, gure enpresak berezko produkzioa du, marrazki bizidunetan bereziki eta horietako lan batzuk oso ezagunak dira, EITBn eman izan direlako. Hala nola, Lazkao-Txiki, Txirrita, Fernando Amezketarra, besteen artean.

Nere lanari dagokionean, berriz, ni bertako langile bat naiz eta ekoizpenaren ardura dut nire gain.

O.A.: Baina zure izena agertu izan da beste ardura garrantzitsuagoekin loturik. Zer diozu hortaz?

I.G.: Izen aldetik, izugarrizko luzera duen titulua da: "Euskal Herriko Ikustentzunezko Ekoizle Burujabeen Elkarteko Lehendakaria" naiz. Elkarte honen izena IBAIA da eta bertan ekoizle independente guztiak biltzen dira.

Beste errenteriar baten ondoren hartu nuen kargua. Izan ere, elkarteko aurreko zuzendaria Anjel Amigo izan baitzen. Baina, errealitatea apalagoa da izenak adierazten duena baino.

O.A.: "Karramarro Uharte" izeneko luzemetraia da saritua izan dena. Nola ekin zenioten pelikula honen ekoizpenari? Aurretik ba al zenuten maila horretako filmaren esperientziarik? Nolakoak ziren zuen itxaropenak luzemetraia egitea erabaki zenuetenean.?

I.G.: Orain arteko gure ekoizpen guztia merkatu lokalera zuzentzen zen eta irteera internazionala eman nahi genion gure ekoizpenari. Asmo horri erantzun nahiean sortu zitzaigun pelikula horren ideia.

Jauzi hori egin ahal izateko eta merkatu horretan lehiakorrak gertatzeko, argi agertzen zitzaigun gure indarrak oso ondo ezagutu behar genituela ahalik eta ondoen erabili ahal izateko.

Bagenekien gure baliabide ekonomikoak mugatuak direnez irudiak ezin zitezkeela luxu handikoak izan, baina kalitatea zaindu behar genuela eta hori bermatzeko JaunBa Berasategirengana jo genuen. Honelako kasuetan, lotura pertsonalak eta elkarren arteko ezaguerak zer esan handia izaten dute eta JuanBa aspaldiko laguna dudanez akordioa oso erraza gertatu zitzaigun.

Musika aldetik ahalegin berezia egin genuen, luzemetraiaaren banda sonora gure ekoizpenaren ezaugarria nagusia bilaka zedin eta Anjel Illarramendi konposagile gazte eta bikainaren kolaborazioa lortu genuen. Eta esan behar dut, harek egin digun musika izugarri

erakargarria dela; oso ona da. Ez dut uste inolako itsumenex ari naizenik, oso ona dela diodanean.

Baina ez ginen horrekin konformatu. Interpretateak ere kalitatezkoak nahi genituen eta gure gustuen araberako artisten aukera egin genuen. Aukeratutako denek baiezkota eman zigute eta oso pozik eta harro gaude horrekin; ez baita txantxetakoa banda horretan parte hartzen duten artisten nomina: Golden Appel Quartet, Maite Arruabarrena, Amaia Zubiria eta J.A.Carril. Benetan, lortutako amets bat da guretzat eta emaitza guztiz erakargarria dela uste dugu.

Euskadiko orkestra Sinfonikoarekin grabaketa egiten saiatu ginen baina luzatu ziguten aurrekontuak gure posibilitateak guztiz gainditzen zituen eta Pragako Orkestra Filarmonikoarekin itxi behar izan genuen kontratua. Ez gara horren damu eta egindako aukeran asmatu genuela berresten du lortutako emaitzak; alde guztietatik kalitatea igertzen baitzaio.

O.A.: Aipatu duzunez, ekoizpen honetan ari-tutako errenteriar bakarra ez zara zu.

I.G.: Arrazoi duzu. Adibidez, Golden Appel Quarteteko Kike Otxoa, Maite Arruabarrena eta marrazkietako animazioaren kontrola daraman Gurutze Peñalba errenteriarrek dira, besteak beste. Lehen esan dizudan bezala, ezaguerak eta harreman pertsonalak askotan bidea errazten dute: Maite Arruabarrenaren kasuan, adibidez, ikastolaz geroztik ezagutzen dugu elkar eta nire arreba Ixiarren betiko laguna denez, bera-rengana iristea eta bere onarpena lortzea oso erraza gertatu zitzaidan. Horri gehitzen badiozu Maitek haur txikiak dituela, oso begi onez ikusi zuen hasieratik eskeintza. Nik uste dut bere haurrekin pentsatuz kantatzen duela grabaketan; hain da xamurra.



O.A.: Espero al zenuten jaso duzuen saria? Eta, bestetik, lehia handia izan al da saria eskuratzeko?

I.G.: Marrazki bizidunetako luzemetraien ekoizpena ez da oso ugaria izaten eta urtero bi filma baino gehiago ez dira izaten. Aurten, berriz, lau ziren egindako filmak eta denak kalitate onekoak izateaz gain gurea baino zabalkunde handiagoa izan zutenak horietako batzuk; adibidez Bilbon ekoiztutako filma. Horregatik saria jasotzea sorpresa izan zen guretzat. Garbi gera dadila saria produkzioari ematen zaiola eta IRUSOIN izan dela sariaren irabazlea. Nik jaso banuen ere, ekoizpenaren arduraduna naizelako izan da.

O.A.: Hori kontatu behar diguzu, Iñaki. Nolakoa da saria jasotzeko momentua? Ezer jakiten al da aurretik? Zer sentitu zenuen saria jasotzean? Zure arerio izan zirenekin nolakoa izan zen geroko harremana?

I.G.: Aipatu dizut IRUSOINen ordezkotzan joan nintzela Lourdes nere emaztearekin, eta emaitzaren berri ez nuen izan irabazlearen izena irakurri zuten arte. Nik bestela pentsatzen nuen eta sekretu hori ez zela hainbestekoa izango, baina nik ez nuen ezer jakin izan momentua etorri arte. Erresorte bat bezala zutitu nintzen, automatikoki. Gero, bapatean, urduritasunak hartu nindun eta oltzarteko bidea oso luzea gertatu zitzaidan; prestatutako ideiak mentalki errepasatzen nituen bitartean, ez nuen inor ahazterik nahi, pozez beterik aurkitzen nintzen. Poza eta urduritasuna, biak batera.

Irudia jaso nuen eta nere lekura itzuli nintze-nean, ondoan nituen beste marrazki bizidunetako luzemetraien ekoizleek bihotzez zoriondu ninduten

eta elkarrekin ospatu genuen saria berandu arte. Oso harreman ona sortu zen gure artean. Ahaztezinezko momentuak izan ziren.

O.A.: Horrelako sari garrantzitsu bat jasotzeak ondorioak ekarriko zizkizuen arlo laboralean, ez al da?

I.G.: Bai. Maila profesionalean izen ona eman digu eta egun ezagunagoak dira gure produktoak. Beste ekoizleekin ditugun harremanetan oso nabaria gertatzen da hori. Orain arte, gure zerbitzuak saltzera mugatzen zen harreman hori, orain berriz etekin profesionala ateratzeko eran gaude eta beste zenbait proiektu bidean ditugu, momentuz marrazki bizidunetara mugaturik. Beste modu batez kontsideratzen gaituzte, baita ministeritzara jo behar dugun garaietan ere; oso inportantea izan da guretzat.



Elkarrizketa amaitutzat ematen dugunean, luzemetraiari buruzko informazio grafikoa eta entzunezkoa luzatzen digu Iñakik; tartean, artikulua hau ornitzeko erabiltzen ditugun marrazkiak eta argazkia. Poza dario alde guztietatik; ez da gutxiagorako. Eta bere pozak pozten gaitu gu. Luzemetraiaren musika ezagutzen dudala eta inongo zurikeririk gabe oso ona eta erakargarria iruditu zaidala aipatzen diot. Mila zorion, Iñaki, zuri eta lan horretan aritu zareten guztioi.

